

## BGAE-KO JASANGARRITASUNAREN KUDEAKETARI BURUZKO INFORMAZIOA

### KUTXABANK ENPLEGUA, ENPLEGUKO BGAE

2016az geroztik, BGAEk inbertsioen kudeaketaren arloan daukan Gizartearekiko Arduratsua den Inbertsioaren Politikarekiko konpromiso esplizituari eusten dio, Erakundeko planen Inbertsio Printzipioen Adierazpenetara txertatuz. Era horretan, BGAEk 203/2015 Dekretuari erantzuten zion, Borondatezko Gizarte-aurreikuspeneko Erakundeei buruzkoa.

Aipatu araudiaren testuinguruan, BGAEk bere antolakuntza-egitura egokitu zuen eta gako-funtzioak ezarri zituen. Era horretan, Kutxabank Gestión SGIIC-k bere gain hartu zuen, (i) alde batetik, Inbertsioen Kudeaketa (aurrez jada egiten zuen) eta (ii), bestetik, BGAEko Arriskuen Kudeaketaren gako-funtzioa.

Hortaz, Erakundeko inbertsioei dagokion guztian, jasangarritasunaren ikuspegitik, Kutxabank Gestión-ek burututako zeregina gakoa izan da, zeinak jasangarritasunaren aldeko bide luze bat egin duen, bere UN PRI printzipioekiko atxikimendua ("United Nations – Principles for Responsible Investment), Jabetza Aktiboaren Politika eta Enpresaren Gizarte Erantzukizunaren Politika (EGE) nabarmenduz.

2021eko martxoan, 2019/2088 (EB) Erregelamenduaren marko arautzailearen testuinguruan, zeinak bere baitan dauden agenteek aplikatu beharreko gardentasunari buruzko arauak ezartzen dituen, jasangarritasunaren arriskuen integrazioari, prozesuetan izandako jasangarritasunaren arloko gertakari kaltegarrien azterketari eta jasangarritasunari buruz zabaldu beharreko informazioari dagokionez, BGAEk honako erabaki hauek hartu zituen:

- Kutxabank Gestión-en erabakiak hartzeko prozesuan, [jasangarritasunaren arriskuen integrazio-politika](#) BGAEko politika gisa hartzea, Kudeatzaileak BGAERI dagokionez jada hartuta daukan arriskuen kudeaketaren gako-funtzioaren esparruaren barruan.
- Kutxabank Gestión-eko [gertakari kaltegarriei buruzko adierazpena](#) bere gisa hartzea, Kudeatzaileak BGAERI dagokionez jada hartuta daukan arriskuen kudeaketaren gako-funtzioaren esparruaren barruan.
- Kutxabank Gestión-eko aipatu politikak eta adierazpena **web orrietan argitaratuta eta bazkideen esku egotea.**
- **Kontratu aurreko informazioa eta** BGAEko Planen **IPA** egokitzea, jasangarritasunaren arloko alderdiak era laburtuan txertatuz.

BGAEk inbertsio jasangarriaren arloan eta jasangarritasun-arriskuen kudeaketaren arloan hobekuntzak ezartzen jarraituko du, esparru honetan sortzen ari den marko arautzaile berriari jarraikiz eta Kutxabank Gestión, SGIIC-tik egingo den kudeaketan babestuz.

**2021eko martxoaren 22ko Gobernu-batzarrean onartua**